

## Thailandia. Haur migranteei giza eskubideak erakatsi



### *CCFD-Terre Solidaire-ek lagundu proiektua*

►Thailandiak kasik lau milioi migrante hartzen ditu, gehienak Birmaniarrek. Ordea Birmaniarren eskubideak maiz zangopilatuak dira, haien haurrek ere ondorioak jasaiten dituzte. Haur migrante horietarik %20 bakarrik eskolatuak dira. Anitzek lan egin behar dute. Kautzu-landetan, obra lantegietan, arraintzan edo turismoan non abusatuak izan daitezkeen..

► Haur horiek esperantzarekin handitzen laguntzeko “Foundation for Education and development” elkarteak haur birmaniarrek eskolatzeko dituzten pobreziatik ateratzeko helburuarekin. Eskolaz gain, “haurrak mugiri” deitu programa proposatzen die. Helburua hau da : haurrak moldatu beraien eta beren komunitateen eskubideak ezagutzen eta zaintzen. Bost eguneko formakuntza baten kari, giza eskubideen aitormen unibertsala eta ere haurren eskubideen ituna ikasten dituzte, eta engaiatzen dira giza eskubideen bortxaketak borrokatzerat. Horrela formatuak diren haurrek beste erakusten die ikasi berri dutena

## Bangladesh. Herrian gelditu diren haurrak zaindu



### *Laguntza katolikoak, Caritas-ek lagundu proiektua*

►Badu bost urte, emazteak lekuz aldaratzen direla gero eta gehiago Bangladeshen. Lanbide duinago eta emankoragoak bilatzen dituzte, sorterrian utzi dituzten haurren bizimaila hobetzeko. Ordea, haurrak beren ber utziak dira, zailtasunak dituzte osasun eta hezkuntza zerbitzuetara jotzeko. Ahantzi gabe abandonatuak sentitzen direla.

►Laguntza katolikoak OKUP deitu zerbitzua irekia du haur horiek laguntzeko biziari oharitzen elkarte batzuetan, beren osasuna eta higienaren betebeharrak ezagutzen, bai eta bidenabar beren ongizatea indartzen. Programa horretan badira ehun haur. Okup-ek laguntzen ditu ere amak sorterrirat itzultzen.

## Tchad. Migrante kanpamenduetako haurrak lagundu bizikidetasuna ezagutzen



### *Frantziako Zkut/gidek lagundu proiektua*

➤ Tchadek gerla urte luzez ezagutu du. Orain haatik egoera egonkortsu da, bakean bizi den eremu bat bilakatua da, nahiz auzo herrietan terrorismoa eta gerlak ez diren atertzen.

Horrengatik anitz dira Tchadera itzultzen direnak edo askoz gehiago oraino gerla lekuetarik ihes egiten dutenak Tchaden bakean bizitzeko.

Nola anitz diren eta maiz multzo handitan Tchadek irekiak dituen migrante-gunetan kokatzen ditu

➤ Zkuten xedea urte batentzat pentsatua da. Lehen hilabeteen, 16 urtez goiti duten 100 bidekari moldatuko dituzte, haurrak animatzen, giza eskubidez jabetzen, elkarbizitzari irekitzen, ahantzi gabe VIH/Sida nola borrokatu erakutsiko dietela. Gero, horrela moldatuak izan diren "bidekariak" kanpamenduetan ibiliko dira 11 hilabetez, sentsibilizapen kanpainak burutuko dituzte haur eta guztiekin.

## Maroko. migranteen haurrak eskolatu



### *OPM. Haurren misiolaritza zerbitzuak lagundu proiektua*

➤ Maroko 1990 urtetaz geroztik, Afrikatik Europara pasateko lekua bilakatua da. Migrazio mota horren beti handitzerat ez uzteko Marokok migrapen kontrolak zorroztu ditu. Ondorioz migranteak Marokon blokatuak dira. Hauetarik %80 Saharako hegoaldeko herrietatik etorriak dira; erdiek 25 urterik ez dute, laurden bat adin ttikikoak dira.

Segur 2013-ko legeak haur horien eskolatzeari ateak ireki dizkiola, baina eskolatzeko lan hori egiazko desafio bat da, haur migrantek urteak iragan baitituzte eskolara joan gabe, eta ez baitute Marokoko mintzaira konprenitzen.

➤ Haur migrante horiek ez beregisa uzteko, « Caritas Maroc » erakundeak hizkuntza eta intserzio programa bat xutik ezarria du 120 haur migranterentzat. Hauek eskola unitate berezietan arabe hizkuntza ikasten dute, geroago eskola marokoarretan sartzeko gutxieneko hizkuntza maila ukaiteko gizan. Bide nabar haur migrantek ikasten dute jaten, beztitzen eta beren osasuna menperatzen.